

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FUNDAZIOEK 15.000 LANGILE BAINO
GEHIAGO DITUZTE**

- **EAE n 475 fundazio zeuden aktibo 2022aren amaieran.**
- **Euskal fundazioek 7.500 milioi eurotik gorako ondare garbia dute, balio erantsiko 635 milioi euro inguru sortzen dituzte eta 1.448 milioi euroko diru-sarrerak kudeatzen dituzte.**
- **Enplegatuen % 56 emakumeak dira, eta gobernu-organoetan, berriz, % 35.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzak, Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren mende dagoenak, "Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioektoria eta Onura Publikoko Elkartegintza" estatistika-eragiketari buruzko informazioa argitaratu berri du. Bertan, Euskadiko fundazio-ektorearen eragin ekonomikoa jasotzen da, kontuak aurkeztu dituzten fundazioen magnitude ekonomikoa nagusien ustiapenaren bidez (ondarea, diru-sarrerak, gastuak eta balio erantsia) eta jardueran inplikaturako pertsona mota desberdinen zifren bidez (enplegatuen, boluntarioak eta gobernu-organoetako kideak).

2022. urtearen amaieran, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan guztira 674 erakunde zeuden inskribatuta, eta horietatik 199 ez-aktibotzat jotzen dira. Hala, aztertutako fundazio aktiboetatik, % 26k gizarte-zerbitzuen eta osasunaren arloetan jarduten dute, % 17k garapen ekonomikoa eta komunitarioko eremuetan, eta % 16k kulturaren eta euskara jardueratan.

Soldatapeko langileei dagokienez, sektorean lan egiten duten 15.000 pertsonatik % 56 emakumeak dira. Aztertutako fundazioen gobernu-organoak osatzen dituzten 3.000 pertsonetatik, emakumeak % 35 dira.

Kontuak aurkeztu dituzten euskal fundazioek 7.500 milioi eurotik gorako ondare garbia dute, eta 1.448 milioi euroko diru-sarrerak lortu dituzte; haien artean nabarmentzen dira zientzia- eta teknologia-fundazioek (% 26) eta gizarte- eta osasun-zerbitzuetako fundazioek (% 24) jasotakoak.

Aztertutako euskal fundazioek 2022an 635 milioi euro inguruko balio erantsia sortzen lagundu zuten, ondorio zuzenak soilik kontuan hartuta, hau da, emaitzen kontutik lortutako produkzio-inpaktuak. Zifra hori EAEko BPGaren % 0,82 da 2022an.

2022 urtea	Kopurua	%
Fundazio aktiboen kopurua	475	70,0
Aktibo ez dauden fundazioen kopurua	199	30,0
Fundazio aktiboen kopurua x 100.000 bizt.	22	-
Soldatapeko enplegua	15.011	100,0
Soldatapeko emakumeak	8.411	56,0
Emakumeak patronatuetan	1.077	35,0
Diru-sarrerak (milaka eurotan)	1.447.501	100,0
Gizarte-Zerbitzuak eta Osasuna	346.024	23,9
Hezkuntza	124.674	8,6
Kultura eta euskara	109.270	7,5
Kirola	29.245	2,0
Garapen sozioekonomikoa eta komunitarioa	93.118	6,4
Zientzia eta teknologia	370.805	25,6
Beste jarduera-eremu batzuk	374.367	25,9
Gastuak (milaka eurotan)	1.154.105	100,0
Balio Erantsi Gordina (BEGd) uneko prezioetan (milaka eurotan)	634.689	
% BPGd-ren gainean		0,8

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Eusko Jurlaritzza. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila

Tel.: 945 01 90 78

<https://www.euskadi.eus/euskal-autonomia-erkidegoko-fundazio-sektorea-eta-onura- publikoko-elkartegintza/web01-s2jusap/eu/>